

sail hortan Urruxolak arrazoiz eta ongi salatu zuen «-pena» horren gehiegizko erabilerak ematen zion pena. Baina, kutsadura sakona izaki.

Geroztik, beste era bateko «penaz»-z eraman dut harridurarik aski. Larrienak erdizpurdizko idazleen artean somatu ditut. Baina ereinotzaren inguruan dabiltzan idazleengandik ez nuen holakorik espero. Zeren, Andu adiskidearen eleberri saritua irakurtzen, 57. orrialdean honako hau agertzen bait da: «... honetarako bakarrik ere bidaiak merezi zuela *pena* erabaki». Zer arraio esan nahi ote du? Bidaiako nekeen penak merezi dutela? Hala dirudi. Baina, hor, koma edo kaxotxa delakoren bat faltako da nonbait. Hala ere, esaldia «...zuela»-rekin bukatzea aski zuen.

Baina, zer harridura izan dudan umoredun antologia gisa Juan Martin Elexpuruk *Fernando plaentziarra* delakoaren hitzaurre bukaeran, bilduma justifikatu nahirik, honako hau dionean: «Pena merezi du benetan». Zer da hori? Lehenago ez, «leno», Santio erromes itxurako hark ere, bere ustezko herri hizkuntzan idatzi zuen: «pena merezi du». Gaztelera *merece la pena*-ren ordezkotzat nonbait. Hala dirudi.

Gizonok «pene» sobra ez badaukagu ere, nere ustez «pena» hori euskaldunontzat sobra dago.

GIPUTZA.—Jatorrizko adierazpenetik sortutako deiturak anitz badira, bereziki herbesteetan izengoiti erako erabileratik datozenak. Euskal Herriko lurraldeetarikorik anitz zabalduak dira, deituretan (eta, arren, irakurleak har dezala deitura apellitotzat, berriki asmatutako abizena baino jatorragoa denez); deitura zabalduok: Nabarro, Navarro, Alava, Bizkai eta Vizcaya, Zubero eta Sola (Sola, Zuberoa bait da erromantze zaharrean) maiz aurkitzen ditugu agiri zaharretatik gure egunkarte. Baina era hortan ez zaigu agertzen Gipuzkoarik eta inoiz pentsatu dugu gure probintzia honen izena oso berandukoa delako edo herbesteetan Vizcaino bezala hartu zutelako. Gaztelan hala zitekean, Sancho de Azpeitia el vizcaíno Cervantes-ek berak dakarrenez. Baina, aintzinakoa izatearen arrazoia ez da aski, zeren Lapurdikorik ez dugu aurkitzen eta Erromatarren

garaitik bazen Akitania partean Lapurdum bezala ezagutua. Berez, zahartasunik ezin uka.

Gipuzkoarrei ordea, Gaztelan ez, baina Bizkai aldean mai-zenik «giputza» edo «kiputxa» deitzen zaie, «probintzianoa» edo deitzen ez zaionean. Jakina da Nafarroan eta Bizkaian aspalditikakoa dela «Probintzia» eta «probintzianoa», zeren ez bait zen alperrik Espainian Gaztelako erregeen lehen Probintzia. Baina, Bizkaian, ezinezkoa zen Gaztelanian bezala gipuzkoarrei «vizcaíno» deitzea, eta hara nola aurkitzen ditugun XIV eta XV. mendeetan izengoitikako Giputz deiturak. Gipuz (Giputza noski) deitura horiek Juan Carlos de Guerra-ren *Oñacinos y gamboinos, rol de benderizos vascos* (1930) liburuan datoz. Lekukotasun hori 95. orrialdean ikus genezake, era honetan:

«GUIPUS — Juan Pérez el, firmó las treguas de Abendaño con Bilbao en 1353, en unión de Martín Guipuzá.

GUIPUZA — Joan, Gamboino, morador de Ea, que concurrió al ataque de Mondragón en 1448».

Beraz, hara hor mende baten distantzian hiru persona *Gipuzá* (Giputza) deituradunak. Nonbait, bizkaitarrentzat ezinbestekoa zelako. Hortik hiru lekuko: Juan Pérez Guipus, Martín Guipuzá eta Joan Guipuzá.

GEOGRAFIA OZTOPO. — Geografiaz maiz nahasten dira era desberdinetako gaiak, adibidez, politikazko geografia eta linguistikakoa, bakoitzak bere eremu ezaguna edukiarren. Esan beharrik ez da edozein gaitan lehenik mugaketak ondo egin beharra dagoela, baina gure herriko jakitunek inoiz argi ikusten ez dutena ez da erraz herbestekoei ikustea. R. Menéndez Pidal ospetsuaren adibide bat emango dut. Jaun honek, 1948. urtean Instituto de Estudios Pirenaicos erakundeak Pirineoko toki izenez eratu zituen bileretan «Javier-Chabbarri, dos dialectos ibéricos» zeritzan lana aurkeztu zuen, urte berean *Emerita aldizkarian* argitaratuko zena eta geroago berriz *Toponimia prerrománica hispana* (1952) liburuaren kapitulu bat osatuz. Lan horretan, «barri» eta «berri» geografian mugatzeko unean,